

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proposamena Touch Tennis gune bat sortzea da. Touch Tennis-a tenisean oinarritutako kirol modalitate bat da, pista trinkoago batean jokatzen dena, aparrezko pilotekin eta 21 "ko erraketekin. Bi jokalariren artean jokatzen da (1vs1) edo bi bikoteren artean (2vs2).

Kirol hau tenisa baina errazagoa eta geldoagoa da, izan ere, erraketa txikiagoekin, aparrezko pelotekin eta pistaren dimentsio txikiek kirol hau errazten dute beste kirol batzuekin alderatuta.

Rashid Ahmadek 2002an Londresen sortutako kirola da, eta hazkunde handia izan du Erresuma Batuan, Espainian, Estatu Batuetan, Frantzia, Argentinan eta Zelanda Berrian.

Kirol hau aukeratu dugu Euskal Herrian ez delako oso ezaguna, era honetan, jendeak kirol honi buruz informazioa eskuratuko du eta haien ezagumena zabaltzeko. Inguruan ez dago kirol hau zerbitzu gisa ematen duela eta horregatik gu izango gera negozio honen aintzindariak.

Guk eskaintzen dugun zerbitzuak bakarrak eta bereziak izango dira eta hori da besteengandik bereizten gaituena, hau da, negozio mota hau ez da batere ugaria eta horregatik eskari asko izango ditugu.

Gure zerbitzuak jende mota guztiari bideratuta egongo dira, txikienetatik helduenetaraino. Tenisa gustoko duten helduek eta txikiek kirol hau probatzeko irrika izango dutela uste dugu eta dagoeneko tenisean eskuratu duten ezagutza Touch-Tenisean erabiliko dituzte.

Bukatzeko, gure abantaila nagusia espazioaren ustiapena izango da, izan ere, tenis pista batek behar duen espazioan gure Touch-Teniseko 4-5 pista eraiki ditzakegu, beraz diru-sarrera ugariagoak izango ditugu eta gastu gutxiago.

